

PRENTSA OHARRA: 2021.12.01

Euskararen Nazioarteko Eguneko egitaraua 10 herrialdetara helduko da

- Askotariko ekitaldi, ikastaro eta hitzaldiren bidez, diasporako lagunek eta euskara ikasleek aukera izango dute hizkuntzaren eta euskal kulturaren berri izateko
- Chicagon, Santiago de Txilen, Moskun, Pragan, Bolonian, Bartzelonan eta Renon egingo dira jarduerak, besteak beste

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunarekin egingo du bat, aurten ere, Etxepare Euskal Institutuak. Askotariko ekitaldi, ikastaro eta hitzaldiren bidez, diasporako lagunek eta euskara ikasleek aukera izango dute hizkuntzaren eta euskal kulturaren berri izateko. Europa eta Ameriketako zenbait txokotara iritsiko da Etxepare Euskal Institutuaren nazioarteko irakurletza sarearen baitan antolatutako kultur programen bidez. Aurten, 10 herrialdetan garatuko dira jarduerak hauek, eta horietako asko online jarraitu ahalko dira.

Besteak beste, Chicagon, Santiago de Txilen, Moskun, Pragan, Bolonian, Bartzelonan eta Renon egingo dira hitzaldiak, mintzodromoa eta filmen proiektzioak. Jardueren zerrenda guztia kontsultatu daiteke beheago.

Irakurleak Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan, gradu edota graduondokoa ikasten ari diren ikasleei euskara eta euskal kultur ikastaroak eskaintzen dizkieten irakasleak dira. Etxepare Euskal Institututik abiatutako eta kudeatutako programa bat da, atzerriko unibertsitateekin elkarlanean; eta irakasle guzti horiek eta euren ikasleek osatzen dute irakurletza sarea. Euskara eta euskal kultura klaseak emateaz haratago doan lana egiten dute: euskal bizimodu eta tradizioen eredu eta sustatzaile dira

atzerrian. Irakurleek, Etxepare Euskal Institutuaren sustapen eta laguntzarekin, euskal kulturarekin lotutako ekintzak antolatu ohi dituzte urtean zehar, Euskal Herrian garrantzitsuak diren efemerideak, pertsonaiak edota ohiturak ezagutarazteko helburuarekin.

Euskararen Nazioarteko eguna 1949an egin zuten lehenengo aldiz, Eusko Ikaskuntzak sustatuta. Ofizialki, hala ere, 1995an hasi ziren Euskararen Nazioarteko Eguneko jai, bilera eta bestelako ekintzak, euskal diasporak mundu osoko lehen kongresuaren kariatara egin zuen garaian. Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak egoki ikusi zuten abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izendatzea.

Jarraian kontsultatu daiteke aurtengo jardueren zerrenda osoa:

Santiago, Txile

Abenduaren 1ean, 14:00etan (Santiago)

Hitzaldiak

Maider de Olmo Zubeldia irakurlea Txilen

Kinku Zinkunegi Euskara Munduan programaren arduraduna

Iñigo Asensio 'Euskara Munduan' dokumentalaren Zuzendaria

Chicago, AEB

Chicagoko Unibertsitatea

Abenduaren 2an

Basque and Catalan Movie Club - Bertsolaritza in the Basque Country: A unique tradition

Solasaldia eta film baten proiektzioa

Zoom bidez. Online

Brno eta Praga, Txekiar Errepublika

Masaryk Unibertsitatea eta Karlova Unibertsitatea

Abenduaren 2an eta 3an

'Dantza' filmaren proiektzioa Brnon abenduaren 2an. Hurrengo egunean, abenduaren 3an, Oier Araolazarekin filmari buruzko eta euskal dantzen inguruan solasaldia

Filmaren proiektzioa Brnoko unibertsitatean egingo da. Aldiz, Oierrekin solasaldia online formatuan, Zoom bidez. Ostiralean, abenduak 3, 12:00etan izango da. Ingelesez

Bolonia, Italia

Bolognako Ama Mater Unibertsitatean eta online

Abenduaren 2an

Hitzaldia: 'Studiare basco in un barnetegi'

Marta de Pedis eta Claire d'Inca Zornotzako Barnetegiko ikasleak izan dira. Euren esperientziak kontatuko dituzte. De Pedis egun Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea da eta bere ibilbide profesional eta pertsonalean euskarak izan duen garrantziaz arituko da

La Plata, Argentina

La Platako Unibertsitatea

Abenduaren 1ean

Hitzaldia: 'Diasporako euskara ikasleei begirako materiala, klaseak, proposamenak...'

Arratsaldeko 18:00etan Argentinako ordutegian. Euskal Herrian, gaueko 22:00etan

Maizpideko Jon Urdangarin irakasleak hitz egingo du Euskara Munduan programari buruz.



La Platan ez daudenek zoom-en jarraitu ahal izango dute. Gero brindisa egingo dute, unibertsitatean

Leipzig, Alemania

Abenduaren 2an, 10:00etan

Leipzigeko unibertsitatea

Euskara ikastaroa

Poznań, Polonia

Adam Mickiewicz Unibertsitatea

Abenduaren 1etik 8ra

Euskara eta euskal kultura ezagutzera eman, batez ere Polonian euskaratik itzuli den literaturaren berri emateko hitzaldiak Katarzyna Mirgos, Joanna Zawiszewska, Natalia Stolarska, ikasle eta ikasle ohiekin

Bartzelona, Herrialde Katalanak

Bartzelonako Unibertsitatea eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Hitzaldia + Erakusketa + Kimuak emanaldia + Mintzodromoa

Euskara eta dialektologiaren inguruko Koldo Zuazoren hitzaldia

Igotz Ziarreta argazkilari eta diseinatzailearen obraren erakusketa UABn eta unibertsitateko liburutegiko sarreran dauden euskal liburu batzuen erakusketa

Kimuak laburmetraien proiektzioa (abenduaren 9an)

Abenduaren 10 ean, Euskal Etxearekin eta Bartzelonako Hizkuntza Eskola Ofizialarekin elkarlanean antolatu dute Mintzodromoa

Mosku, Errusia

Moskuko Lomonosov unibertsitatea

Hitzaldia Nerea Madariaga EHUKo irakaslearekin. Errusieran aditua da. Zoom bidez



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

Reno, AEB

Osteguna, abenduak 2

10:00-11:30 AM PST - 19:00-20:30 CET

Hitzaldiak

Xabier Irujo: Euskara Erbestean

Asier Barandiaran: Euskara Diasporan bertsotan eta hizketan

Eneko Bidegain: Eskutitzak eta Aho-Hitzak

Mexiko Hiria, Mexiko

Abenduaren 4an

13:00etan

'Amari' dokumentala + euskara ikasleen topaketa

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus